

## **Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen eta Garabide Elkartearen arteko hitzarmena**

### **SINATZAILEAK**

Alde batetik Leire Mitxelena Gamio (NAN 44631990F), Bortzirietako Euskara Mankomunitateko (IFZ: P3126685A) lehendakaria denez, erakunde horren izenean, eta indarrean dagoen legeak emandako ahalmenaren arabera.

Bertze aldetik, Iñaki Martínez de Luna Pérez de Arriba (NAN: 16222346D), Garabide kultur elkarteko (IFK: G20890315) lehendakaria denez, erakunde horren izenean.

Bi aldeek gaitasun nahikoa aitortzen diote elkarri, hitzarmen hau sinatzeko eta, hori dela eta,

### **AZALTZEN DUTE**

Garabide Elkartek urteak daramatza garapenerako euskal lankidetzaren barruan kooperazio ildo berri bat lantzen: hizkuntza lankidetzaren. Hau da, Hego Globaleko herrietako hizkuntza gutxituen biziberritze prozesuak sustatzeko egitasmoak lantzen, honako helburu hauekin:

- 1.- Hego Globaleko herrietako hizkuntza komunitate minorizatuarekin lankidetzaren bideratzea euskara eta euskal kulturaren biziberritzea oinarri duen esperientzia trukearen bidez.
- 2.- Norabide horretan, Hego Globaleko komunitate minorizatuarekin eragileekin lankidetzaren proiektuak garatzea. Lankidetzaren proiektu horiek hizkuntzaren, kulturaren eta nortasunaren garapen-aldorrean gauzatzen dira eta indar berezia jartzen da hezkuntzaren alorrean.
- 3.- Euskararen eta euskal kulturaren garapenean lanean ari diren erakundeek Hego Globaleko hizkuntza komunitate minorizatuarekin lankidetzarako beren esperientzia eskain dezaten sustatzea, horretarako markoa eta bideak eskainiz.

Bortzirietako Euskara Mankomunitateak, bere aldetik, egoki ikusi du 2017-2021 aldian hasitako lan ildo honi jarraipena ematea, Garabide Elkartearekin batera, hemendik aitzinera garapen bidean dauden herrietan hizkuntza normalizatzeko egitasmoak sustatzeko.

Horiek horrela, bi aldeek, ados jarrita, hitzarmen hau sinatzen dute, honako klausulen arabera:

## **KLAUSULAK**

### **1.- HITZARMENAREN XEDEA**

Hitzarmenaren xedea honako hau da: Garabide Elkarteen jardura eta proiektuak finantzatzeko dirulaguntza zuzenaren baldintzak arautzea.

Dirulaguntza jardura hauek gauzatzeko jasoko du Garabide Elkartek: munduko hizkuntzen biziberritze proiektuak indartzen laguntzeko jarduerak, horien artean modu intentsiboan kitxua, nasa, nawat, kaqchiquel, maputxe, aimara, guarani, yukatango maia, amazigh eta kurduenak.

Trukean, merezitako aitortza publikoa egiteko konpromisoa ez ezik, herritarrengan hizkuntza minorizatuekiko sentsibilitatea pizteko mankomunitatearekin adostutako ekimenetan parte hartzeko konpromisoa hartzen du Garabidek.

### **2.- GARABIDE ELKARTEAREN BETEBEHARRAK**

Garabide Elkartek honako betebeharrak hartzen ditu bere gain, mankomunitatearen diru ekarpena jasotzearen truke:

- Diruz lagunduko diren proiektuak gauzatea.
- Proiektu horiei buruzko unean uneko informazioa ematea mankomunitateari.
- Dagokion epean, proiektuen gauzate mailari buruzko txostena aurkeztea eta diru kontuak egoki zuritzea.

### **3.- BORTZIRIETAKO EUSKARA MANKOMUNITATEAREN BETEBEHARRAK**

- Diru-ekarpenaren ordainketa zehaztutako modu eta garaian egitea.
- Garabiderek elkar lanean, ekitaldi bat antolatzea adostutako datan, egindako lanaren berri emateko balioko duena eta herritarrak sentsibilizatzeko helburua izanen duena.

### **4.- EKARPEN EKONOMIKOA: KOPURUA ETA ORDAINTZEKO MODUA**

Ekarpen ekonomikoaren kopurua, urtean 1.647,53 eurokoa izanen da, mankomunitatearen aurrekontu propioak horretarako aukera ematen dion neurrian eta betiere dagokion diru izendapena aurreikusi bada aurrekontuan. Horretarako mankomunitateko aurrekontuan entitatearen izenarekin izendatutako partidako kreditua erabiliko du (1 3350 4820007 partida).

Garabide Elkartek ezin izanen du jaso, inolaz ere, diruz lagundutako jardueraren kostuaren % 100etik goitiko diru ekarpen publikorik.

Diru ekarpena urtearen lehen hiruhilekoaren barruan ordainduko da osorik; nolahi ere, urtearen bukaeran, Garabide Elkartek urteko gastuen eta diru sarrerren balantzea aurkeztu beharko dio mankomunitateari. Hori betetzea nahitaezko baldintza izanen da hurrengo urteko diru laguntza jasotzeko.

## 5.- DIRULAGUNTZA JUSTIFIKATZEKO EPEA ETA MODUA

GARABIDE ELKARTEAK txosten bat aurkeztu beharko du diru ekarpena jaso den urtea amaitu eta gehienez hiru hilabetera, eta bertan jaso beharko ditu:

- Urteko jardueren berri zehatza.
- Gastuen eta diru-sarrerren balantzea, fakturen eta bestelako agirien kopiak erantsita.
- Erantzukizunpeko adierazpena, l. eranskineko eredia behar bezala beteta.

Dokumentazioa mankomunitatearen egoitza elektronikoaren bidez aurkeztuko du, helbide honetan:

<https://egoitzaelektronikoa.bortziriak.eus/carpetaciudadana/tramite.aspx?idtramite=1521>

## 6.- HIZKUNTZA IRIZPIDEAK

Onuradunaren eta mankomunitatearen arteko harremana, ahozkoa nahiz idatzizkoa, euskaraz izanen da. Halaber, onuradunak herritarrekiko ahozko nahiz idatzizko harremanean euskararen erabiliko du beti, bere ohiko jardueran eta mota guzietako komunikazioetan, eta euskararen kalitatea bermatuko du ahozko eta idatzizko ekintza guzietan.

## 7. BERDINTASUN IRIZPIDEAK

Diruz lagundutako proiektu eta/edo jardueraren ondorioz sortzen den dokumentazio, publizitate, irudi edo material guzietan:

- Hizkuntza ez-sexista erabiliko da.
- Emakumeak diskriminatzen dituzten irudiak edo estereotipo sexistak saihestuko dira.
- Berdintasunaren, presentzia orekatuaren, aniztasunaren, erantzukidetasunaren eta genero rol eta identitate aniztasunaren balioak dituzten irudiak sustatuko dira.

## 8. HITZARMENAREN ERAGINAK ETA INDARRALDIA

Hitzarmena sinatzen duten bi aldeek bere horretan eusten diete beren ahalmenei eta hartzen dituzten erantzukizunak hitzarmenean jasotako obligazio eta konpromiso horietan, ez bertzerik.

Hitzarmen honen iraupena urtebetekoa da. Hala ere, bi aldeak ados egonez gero, mankomunitatearen aurrekontu propioak horretarako aukera ematen dion neurrian eta betiere dagokion diru izendapena aurreikusi bada urteko aurrekontuan, hitzarmenaren iraupena urtero luzatu ahal izanen da. Betiere gehienez lau urteko iraupena izanen du, luzapenak barne.

Adostasun seinale, hitzarmen hau sinatu dugu.

Leire Mitxelena Gamio  
Bortziritako Euskara Mankomunitateko  
lehendakaria

Iñaki Martinez de Luna Perez de Arriba  
GARABIDE elkarteko lehendakaria

## I. ERANSKINA

Izen-abizenak:

NAN:

Ordezkatzen duen erakundea eta kargua:

### NIRE ERANTZUKIZUNPEAN ADIERAZTEN DUT:

1. Bortzirieta Euskara Mankomunitatearekin (data)n sinaturiko hitzarmenean xedatutako baldintzak betetzen ditudala.
2. Hemen adierazitako datuak eta aurkeztutako dokumentazioa egiazkoak direla.
3. Dirulaguntza Orokorrei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikulua 2. eta 3. apartatuen eta 34.5 artikuluan xedaturikoaren arabera ez nagoela sartuta dirulaguntza publikoak itzularazteko edo zigortzeko inongo prozeduratan.
4. Eskabide honekin batera baimena ematen diodala mankomunitateari behar den informazio guztia biltzeko, hemen xedatutakoa eta aurkeztutakoa egiaztatzeko. Hori guztia Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan adierazitakoaren arabera.
5. Helburu bererako bertze erakunde publiko nahiz pribaturi dirulaguntza/aportazio eskaerari dagokionez (markatu dagokiona):
  - Ez diodala bertzelako erakunde publiko nahiz pribaturi dirulaguntza/aportazio eskaerarik egin.
  - Bertze erakunde publiko nahiz pribaturi edo pertsona fisikori dirulaguntza/aportazio eskaera hau egin diodala edo jaso dudala:

ERAKUNDEA/PERTSONA	KONTZEPTUA (Adibidez: , jendeen aportazioa, boletoen salmenta, ostatuen aportazioa, etab.)	ZENBATEKOA	EGOERA (Ebatzi gabea, ebatzita baina kobratu gabe edo kobratuta)

(Data eta sinadura)